



LAB sindikatuaren agiria – 2018ko abenduan

Urtero bezala, komertsio handiek orain dute igande egun oso batzutan idekitzeko baimena eskatzen auzapezeri eta azken hauek herriko kontseiluaren iritzia eskatu behar dute erabaki bat hartu aintzin.. Komertsioek igande horien datak eman behar dituzte abenduaren 31a baino lehenago, hurrengo urteari begira, eta gehienez 12 igande ahal dituzte eskatu.

Azpimarratu behar da komertsioek badutela jadanik aukera idekitzeko igandero arratsaldeko ordu bata arte. Hor aldiz, egun osoko idekitzeak eskatzen dituzte. Igande horiek kasu gehienetan urte bukaerako pesten inguruan kokatzen dira (abendurartean), baita batzutan uda sasoinan (ekaina, uztaila, agorrilan).

LAB sindikatua baimen horien kontra posizionatzen da eta igandeko lanaren orokortze hori salatu nahi du (5 milioi langile inguru hunkituak frantses estaduan, baimen berezi aukera gero et gehiago), besta eta pausa egun hauek egun arruntak bilakatuko direla, merkataritzaren logikak, lagunarte eta familiaritari aurre hartuz. Askatasun faltsu bat da !Hautatzeko eskubide faltsu bat biktima desberdinak egiten dituen : langile prekarioak alde batetik, bainan ere hiri erdiko komertsio tikiak. Inkesta gehienek azpimarratzen duten bezala, ertain hirietan eta baserrian, komertsante askok idekitze horien ondorioak pekatzen dituzte eta... emeki emeki hiltzen diren enpleguak dira...

Hortarako, LAB sindikatuak dei bat luzatzen du hautetsi guzietan, haien oposizioa igandeko idekitzeeri aldarrika dezaten egun hauetan iraganen diren Herriko kontseiluetan baita batzuentzat Elkargoaren baitan.

LAB sindikatuak beste dei bat luzatzen du ere bezeroeri, ez diten joan saltoki handi horietara egun horietan. Azkenean honek baitu ere idekitze horiek geldiaraziko, supermerkatu hutsak diru galtzeak bilakatuz diruz egarri diren nagusi horientzat

Elkarrekin, defenda dezagun gehiago bertako ekonomia bat, bertako ekonomia arduratsu eta soziala bat.

Igande eta pesta egunetako lanari ez !

Igande eta pesta egunak, bizitzeko egunak